Bizkaia azpiegiturak

Bizkaia foru aldundia diputación foral

## ERANSKINA

**Hitzarmenaren aldaketa, Bizkaiko Foru Aldundiak Azpiegiturak, S.A.M.P. foru-sozietateari egiten dion transferentzia formalizatzeari buruzkoa. Hitzarmenaren xedea Bilbao-Bizkaia metropoliaren ikuspegi eraldatzaile, lehiakorra eta berritzailea definitzeko ekintzak garatzea da.**

Bilbon, 2023ko ……………………..ren …..(e)(a)n

## BILDU DIRA

Alde batetik Imanol Pradales Gil jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua (aurrerantzean, BFA), erakunde horren izenean eta hura ordezkatuz, Ahaldun Nagusiaren uztailaren 6ko 169/2023 Foru Dekretuaren arabera.

Eta bestetik, Itziar Garamendi Landa andrea, Azpiegiturak, S.A.M.P. sozietatearen izenean eta ordezkari gisa (IFZ: A-95616892; helbidea: Islas Canarias 9-1- Bilbo), 2015ko abustuaren 6 datan Andrés María Urrutia Badiola notarioaren aurrean (haren protokoloko 1449 zenbakia) emandako ahalordea dela bide.

Ordezkatzen dituzten erakundeen izenean hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna aintzatetsi diote elkarri. Hauek dira hitzarmenaren aurrekariak:

## ADIERAZI DUTE

**Lehenengoa.-** Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez (gai-ordenaren 43. puntua) onetsi zen AZPIEGITURAK S.A.M.P. foru-sozietateari egin beharreko transferentzia arautzeko hitzarmena; transferentzia hori Bilbao-Bizkaia metropoliaren ikuspegi eraldatzaile, lehiakor eta berritzaile bat definitzeko ekintzak garatzeari buruzkoa da. Hitzarmena sinatu zen 2022ko abenduaren 27an.

**Bigarrena.-** Hitzarmenaren hirugarren klausulan

## ANEXO

**Modificación del convenio por el que se formaliza la transferencia que la Diputacion Foral de Bizkaia realiza a la sociedad foral Azpiegiturak, S.A.M.P. para el desarrollo de actuaciones destinadas a obtener una visión transformadora, competitiva e innovadora de la Metropoli Bilbao-Bizkaia.**

En Bilbao, a …… de ……………………………. de 2023

## REUNIDOS

De una parte, D Imanol Pradales Gil, Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia (en adelante DFB) actuando en nombre y representación de ésta, en virtud del Decreto Foral de la Diputada General 169/2023, de 6 de julio.

De otra parte, Itziar Garamendi Landa, en nombre y representación de Azpiegiturak, S.A.M.P., con C.I.F A-95616892 y domicilio en Bilbao, C/ Islas Canarias nº 19-1º, en virtud de los poderes otorgados con fecha 6 de agosto de 2015 mediante escritura pública nº 1449 ante el notario Andrés María Urrutia Badiola.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria, para la formalización del presente documento y, de común acuerdo,

## MANIFIESTAN

**Primero,-** Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 27 de diciembre de 2022 (asunto nº 43 del orden del día) se aprobó el convenio por el que se regula la transferencia a la sociedad foral AZPIEGITURAK, S.A. MP relativa al desarrollo de actuaciones destinadas a obtener una visión transformadora, competitiva e innovadora de la Metropoli Bilbao-Bizkaia. El convenio se firmó con fecha 27 de diciembre de 2022.

**Segundo.-** En la Claúsula Tercera del Convenio se

jaso ziren onartzen dituzten obligazioak eta konpromisoak, eta horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak bost milioi laurehun eta berrogeita bost mila (5.445.000,00) euroko transferentzia egingo dio Azpiegiturak sozietateari, 2022ko ekitaldiari dagokiona

**Hirugarrena.-** Halaber, seigarren klausulan hitzarmenaren aldaketen inguruan ezarri zen hitzarmenaren indarraldian, elkarren arteko adostasunez aldarazi ahal izango dela.

**Laugarrena.-** Kasu honetan badaude interes publikoko arrazoiak aldaketak egiteko, izan ere, Bilbo-Bizkaia Metropoliaren ikuspegi eraldatzaile, lehiakor eta berritzailea lortzera bideratutako jarduketak egokitu eta eguneratu dira, lehentasunezko jarduera-eremuei lotutako jarduerak barne hartuta, hala nola energia, mugikortasuna, talentua, zilarrezko ekonomia, finantza-eremua, kultura, aisialdia eta entretenimendua, baita lurralde-analisia ere. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da hasieran beste transferentzia baten bidez egindako transferentziaren zenbatekoa handitzea. Aldaketa honekin hitzarmena modu efikaz eta efizienteagoan egingo da.

Beraz, hitzarmen honen hirugarren klausularen aldatzen da helburu honetarako.

Horretarako, alderdiek hitzarmenaren aldaketa hau sinatzea erabaki dute, honako ildo hauei dagokienez:

KLAUSULAK

BAKARRA.- Hirugarren klausula aldatzea.

Hitzarmenaren hirugarren klausula aldatu da, eta honela geratu da

“Hirugarrena.- Onartzen dituzten obligazioak eta konpromisoak.

Bizkaiko Foru Aldundiak bost milioi laurehun eta berrogeita bost mila (5.445.000,00) euroko transferentzia egingo dio Azpiegiturak sozietateari, 2022ko ekitaldiari dagokiona, eta bi milioi laurehun eta hirurogeita hamabost mila

indicaban las obligaciones y compromisos económicos asumidos, indicando que la Diputación Foral de Bizkaia realizará una transferencia a Azpiegiturak por importe de cinco millones cuatrocientos cuarenta y cinco mil (5.445.000,00) euros, correspondiente al ejercicio 2022.

**Tercero.-** Asimismo en la Claúsula sexta, respecto al regimen de modificación del Convenio, se establece que durante que durante el plazo de vigencia del Convenio, podrá modificarse de mutuo acuerdo

**Cuarto.-** En este caso concurren razones de interés público para la modificación dado que se ha realizado una adaptación y actualización de actuaciones destinadas a obtener una visión transformadora, competitiva e innovadora de la Metropoli Bilbao-Bizkaia basadas en la inclusion de actuaciones ligadas a los ámbitos prioritarios de actuación como la energía, la movilidad, el talento, la economia plateada, el ámbito financiero, la cultura, ocio y entretenimiento, así como el análisis territorilal. Todo ello hace preciso incrementar el importe de la transferencia inicialmente realizada mediante otra transferencia adicional. Con esta modificación las actuaciones reflejadas en el convenio se realizarían de forma más eficaz y eficiente

Por tanto, se modifica la Cláusula Tercera del Convenio con este objeto.

A tal fin, las partes acuerdan suscribir la presente modificación del convenio en el siguiente sentido:

CLÁUSULAS

UNICA.- Modificación de la Cláusula Tercera.

Se modifica la Cláusula Tercera del Convenio, que queda redactada de la siguiente manera

“Tercera.- Obligaciones y compromisos económicos asumidos.

La Diputación Foral de Bizkaia realizará una transferencia a Azpiegiturak por importe de cinco millones cuatrocientos cuarenta y cinco mil (5.445.000,00) euros, correspondiente al ejercicio 2022 y una transferencia adicional por

(2.875.000,00) euroko zenbateko transferentzia, 2023ko ekitaldikoa.

Sortutako gastuari aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa dago aurrekontu-partida honetan: PROGRAMA: 459121; ORGANIKOA: 1002; KONTZEPTUA: 44120; PROIEKTUA: 2022/0069 Bilbao Bizkaia Berrikuntza.

AZPIEGITURAK, S.A.M.P. sozietateak Bizkaiko Foru Aldundiaren transferentzia bidez jasoko du, 2022ko ekitaldian eta 2023ko ekitaldian, hitzarmena eta hitzarmenaren aldaketa sinatu ondoren, adierazitako zenbateko osoak, Bilbao-Bizkaia metropoliaren ikuspegi eraldatzaile, lehiakor eta berritzaile bat definitzeko ekintzak garatzeko."

Eta aurreko guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek hitzarmen honen aldaketa sinatu dituzte.

importe de dos millones ochocientos setenta y cinco mil (2.875.000,00) euros, correspondiente al ejercicio 2023.

Para hacer frente al gasto originado existe crédito adecuado y suficiente en la partida presupuestaria siguiente: PROGRAMA 459121; ORGÁNICO 1002; CONCEPTO: 44120 PROYECTO 2022/0069 Innovación Bilbao-Bizkaia.

AZPIEGITURAK, S.A.M.P percibirá de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante transferencia en el ejercicio 2022 y en el ejercicio 2023, una vez firmado el convenio y su modificación respectivamente, los importes totales indicados por el desarrollo actuaciones destinadas a obtener una visión transformadora, competitiva e innovadora de la Metropoli Bilbao-Bizkaia."

En prueba de conformidad, se formaliza y firma la presente modificación de convenio.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN izenean /
Por la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

IMANOL PRADALES GIL

Azpiegiturak, SAMP sozietatearen zuzendari kudeatzailea /
directora gerente de Azpiegiturak, SAMP

ITZIAR GARAMENDI LANDA